



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

HARTZAILEA/DESTINATARIO:

**OFIZIOA/ OFICIO**

ENPRESA/ EMPRESA: EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO

IFK,IFZ/CIF,NIF: S4833001C

JARDUERA/ACTIVIDAD: ORDEN PUBLICO Y SEGURIDAD

LAN ZENTRUA/CENTRO DE TRABAJO: COMISARIA ERTZAINITZA

GURE ERREF./ NTRA. REF.: AT0018

GAIA/ASUNTO: BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA / REQUERIMIENTO DEFINITIVO

2V  
TB

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN DE EUSKO JAURLARITZA DELEGADOS DE PREVENCIÓN DE GOBIERNO VASCO  
SEGURTASUN SAILA - DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA – DIRECCION DE RECURSOS HUMANOS  
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, 1  
01010 VITORIA-GASTEIZ


**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**  
 LAN ETA JUSTIZIA SAILA  
 Bizkaiko Lan Ikuskaritza  
 DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA  
 Inspección de Trabajo de Bizkaia

2019 A.P.I. 25  
ABR. 25

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. <b>4412</b> <b>157336</b>


Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 4.3.2 artikulua betez, honekin batera bidaltzen da **BEHIN BETIKO ERREKERIMENDUA**ren kopia, data honetan, EUSKO JAURLARITZARI (Segurtasun Saila).

En cumplimiento del artículo 4.3.2 de la Ley 31/95 de Prevención de Riesgos Laborales, se adjunta copia del **REQUERIMIENTO DEFINITIVO** que con esta fecha se realiza al GOBIERNO VASCO (Departamento de Seguridad).

Bilbo, 2019ko apirilaren 16a

Bilbao, 16 de abril de 2019

**BIZKAIKO LAN IKUSKARITZA BURUA**  
EL JEFE DE LA INSPECCIÓN DE TRABAJO DE BIZKAIA

P.A.:  EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO


LAN ETA JUSTIZIA SAILA  
Bizkaiko Lan Ikuskaritza  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA  
Inspección de Trabajo de Bizkaia


**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**  
 SEGURTASUN SAILA  
 GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA  
 Lan, Osasun eta Prebentziorako Alorra  
 DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
 Dirección de Recursos Humanos  
 División de Prevención y Salud Laboral

30 ABR 2019

SARRERA	IRTEERA
	Zkia. <b>67661900439</b>

Izpta./Fdo.: José Antonio Carnero Fernández





ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

HARTZAILEA/DESTINATARIO:

**BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA  
REQUERIMIENTO DEFINITIVO**

ENPRESA/ EMPRESA: EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO

IFK,IFZ/CIF,NIF: S4833001C

JARDUERA/ACTIVIDAD: ORDEN PUBLICO Y SEGURIDAD

LAN ZENTRUA/CENTRO DE TRABAJO: COMISARIA ERTZAINITZA

GURE ERREF./ NTRA. REF.: AT0018

GAIA/ASUNTO: BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA /  
REQUERIMIENTO DEFINITIVO

2V  
TB

EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO  
SEGURTASUN SAILA - DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA – DIRECCION DE  
RECURSOS HUMANOS  
**DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, 1**  
**01010 VITORIA-GASTEIZ**

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
LAN ETA JUSTIZIA SAILA  
Bizkaiko Lan Ikuskaritza  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA  
Inspección de Trabajo de Bizkaia

2019 A.P.I. 25  
ABR.

	<b>4411</b>
SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. <b>157318</b>

**LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO  
BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDUA, LANEKO  
ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO AZAROAREN  
8KO 31/1995 LEGEKO 45 ARTIKULUAN  
XEDATUTAKOAREN ARABERAKOA**

Behean sinatzen duen lan ikuskatzaileak, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza-Sistema Arautzen duen uztailaren 21eko (Uztaliaren 22ko BOE) 23/2015 Legeak ematen dizkion eskumenez baliatuz, honakoa adierazten du:

1.- Honako hau sinatzen duen ikuskatzaileak 2019-03-11n errekerimendu-proposamena egin zuen, erreferentziako administrazio-unitateari (EUSKO JAURLARITZA – Segurtasun Saila) zuzendua. Bertan jaso ziren atzemandako irregulartasunak, horiek zuzentzeko neurriak eta exekuzio-epeak.

**REQUERIMIENTO DEFINITIVO EN MATERIA DE  
SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO DE  
CONFORMIDAD CON LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO  
45 DE LA LEY 31/1995 DE 8 DE NOVIEMBRE DE  
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES**

El/la Inspector/a de Trabajo y Seguridad Social que suscribe, en uso de las facultades que le otorgan la Ley 23/2015, de 21 de julio, Ordenadora del Sistema de Inspección de Trabajo y Seguridad Social (B.O.E. de 22 de julio), hace constar:

1.- Que con fecha 11.03.2019 se extendió por el Inspector que suscribe Propuesta de Requerimiento dirigida a la Unidad Administrativa de referencia (GOBIERNO VASCO / EUSKO JAURLARITZA – Departamento de Seguridad) en la que se recogían irregularidades detectadas, medidas para su

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

2.- Ikuskatzaile jarduleak, ikusirik Alfonso Apellániz jaunak (Laneko Prebentzio eta Osasunaren Dibisioko burua) arestian aipatutako administrazioa ordezkatzu egindako alegazioak eta espedienteen jasotako gainerako dokumentuak (zehazki, Ertzaintzaren ibilgailuen ebaluazio ergonomikoari buruzko behin betiko txostena aurkeztu zaio jarduleari), honako **BEHIN BETIKO ERREKERIMENDU** hau egiten du, zeina helaraziko baitzaio errekeritutako administrazioari eta langileen ordezkariari (707/2002 Errege Dekretuaren 5. artikulua).

Administrazioaren lehenengo alegazioak aipamen egiten dio Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 3.2 artikuluan dagoen aurreikuspenari: *“Lege hau ez da aplikatuko jarduera batzuetan, jarduera horien berezitasunek lege hau aplikatzea eragozten duten ondoko eginkizun publikoen esparruan: Polizia, segurtasuna eta aduana-gordekina.(...) Hala ere, lege honek oinarritzen du, aipatu jarduera horietan zein langilek zerbitzuak eman eta horien segurtasunaren eta osasunaren babesa arautzeko ematen den arautegi berezia”*. Adierazi beharra dago, Ertzaintzaren kasu jakinean, ez dagoela oraingoz segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatu beharreko berariazko araudirik.

Hala ere, eta horri dagokionez, Europako Justizia Auzitegiak (Bigarren Sala) 2006ko urtarrilaren 12ko epaian xedatu zuen baietz, aplikagarri izango litzatekeela 89/391/EEE Zuzentaraua (31/1995 Legeak txertatu zuen zuzentarau hori Espainiako ordenamendu juridikoan), lanak ohiko egoeretan egiten direnean, kasuan kasuko zerbitzuari esleitutako eginkizunaren arabera, nahiz eta jarduera horien

subsanción y plazos de ejecución.

2.- El Inspector actuante, a la vista de las alegaciones formuladas por D. Alfonso Apellániz (Jefe de División de Prevención y Salud Laboral), en representación de la Administración antedicha, y demás documentos obrantes en el expediente (en particular, se ha aportado a la actuante el informe definitivo de evaluación ergonómica de los vehículos del Parque Móvil de la Ertzaintza), extiende el siguiente **REQUERIMIENTO DEFINITIVO**, del cual se da traslado a la Administración requerida y a los representantes de personal (art. 5 RD 707/2002).

La primera de las alegaciones de la Administración hace referencia a la previsión contenida en el artículo 3.2 de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales, que dispone: *“La presente Ley no será de aplicación en aquellas actividades cuyas particularidades lo impidan en el ámbito de las funciones públicas de: Policía, seguridad y resguardo aduanero.(...) No obstante, esta Ley inspirará la normativa específica que se dicte para regular la protección de la seguridad y la salud de los trabajadores que prestan sus servicios en las indicadas actividades.”* Debiendo indicarse que, en el caso concreto de la Ertzaintza, no existe a la fecha normativa específica de aplicación en materia de seguridad y salud.

Sin embargo y a este respecto, la Sentencia del Tribunal de Justicia Europeo (Sala Segunda), de 12 de enero de 2006, dispuso que sí resultaría de aplicación la Directiva 89/391/CEE (la cual fue transpuesta al ordenamiento español a través de la Ley 31/1995) cuando los cometidos se realizaran en condiciones habituales, conforme a la misión encomendada al servicio que se trata, y ello aun cuando las intervenciones derivadas de

 <b>MINISTERIO DE TRABAJO, MIGRACIONES Y SEGURIDAD SOCIAL</b>	<b>ORGANISMO ESTATAL INSPECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL</b>
	<b>LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZA ESTATUKO ORGANISMOA</b>
<b>INSPECCIÓN PROVINCIAL DE BIZKAIA BIZKAIKO IKUSKARITZA PROBINTZIALA</b>	



LAN ETA JUSTIZIA  
SAILA  
Bizkaiko Lan Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA  
Inspección de Trabajo de Bizkaia

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

ondoriozko esku-hartzeak, berez, aurreikusi ezinekoak izan eta segurtasunaren edota osasunaren kontrako zenbait arrisku sortu agenteei.

Labur esanda, bizia, osasuna eta segurtasun kolektiboa babesteko ezinbestekoak diren neurriak betetzea kolokan ez dagoen bitartean, zuzentaraua betetzea lehenetsi behar da, polizia-kidegoetako agenteen segurtasuna eta osasuna bermatzeko. Izan ere, salbuespenaren oinarria ez da halako kidegoetako agentea izatea, baizik eta, soil-soilik, zenbait eginkizun berezik duten izaera espezifikoak, kolektibitatearen babes eraginkorra bermatzeko premia erabatekoaren ondorio dena.

Jurisprudentiaren irizpide hori aplikatuta, zilegi da laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarra duen araudia bete dadila eskatzea —gorago azaldutako muga edo salbuespenak salbuespen—, eta aztergai dugun kasuan halaxe aitortu du *de facto* administrazio enplegatzaileak berak, langileen eskura jarritako laneko ekipamendu jakin baten baldintza ergonomikoak ebaluatuz eta zuzenketa-neurri batzuk har daitezela proposatuz. Neurri horien ezarpenaren bideragarritasuna hein handian egongo da arestian aipatutako segurtasun kolektibo eta ordena publikoko arrazoen mende, alde batera utzi gabe beste muga tekniko batzuk, Lan Ikuskaritza honek ez ezik langileen alderdiak berak ere ezagutzen dituenak.

Aurrekoa ezarrita, bigarren alegazioak aipagai ditu manparadun Seat León ibilgailuetan detektatutako arrisku ergonomikoak arindu edo murrizteko Administrazioak darabiltzan neurri teknikoak eta antolaketakoak —horietako batzuk aztertzen ari dira oraindik.

Horri dagokionez, alegazio-idazkia irakurrita, ez dirudi

dichas actividades sean, por su propia naturaleza, imprevisibles y puedan exponer a los agentes que las realicen a algunos riesgos para su seguridad y/o salud.

En resumen, mientras no se vea comprometido el cumplimiento de las medidas indispensables para la protección de la vida, de la salud y de seguridad colectiva, debe prevalecer la observancia de la directiva para garantizar la seguridad y salud de los agentes de los cuerpos de policía, dado que la excepción no se fundamenta en la pertenencia a tales cuerpos, sino exclusivamente en la naturaleza específica de ciertos cometidos especiales en razón de la absoluta necesidad de garantizar una protección eficaz de la colectividad.

En aplicación de tal criterio jurisprudencial, resulta justificada la exigencia del cumplimiento de la normativa vigente en materia de seguridad y salud laborales —con los límites o excepciones arriba expuestos—, como *de facto* asume la propia Administración empleadora en el caso que nos ocupa, evaluando las condiciones ergonómicas de un determinado equipo de trabajo puesto a disposición de los trabajadores y proponiendo la adopción de una serie de medidas correctoras cuya viabilidad de implantación dependerá, en buena medida, de las razones de seguridad colectiva y orden público anteriormente referidas, además de otra serie de limitaciones técnicas cuya existencia no desconoce ni esta Inspección de Trabajo ni la propia parte social.

Sentado lo anterior, la segunda alegación se refiere a las medidas técnicas y organizativas de las que la Administración dispone —algunas en estudio— para paliar o reducir los riesgos ergonómicos detectados en los vehículos Seat León con mampara.

A este respecto, de la lectura del escrito de alegaciones no parece desprenderse disconformidad con el fondo



MINISTERIO DE  
TRABAJO, MIGRACIONES  
Y SEGURIDAD SOCIAL

ORGANISMO ESTATAL INSPECCIÓN DE  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO  
IKUSKARITZA ESTATUKO ORGANISMOA

INSPECCIÓN PROVINCIAL DE BIZKAIA  
BIZKAIKO IKUSKARITZA PROBINTZIALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA  
SAILA  
Bizkaiko Lan Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA  
Inspección de Trabajo de Bizkaia

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

kontrajarrita dagoenik jardulearen errekerimendu-proposamenaren muinarekin. Hala ere, bertan agerian geratzen da desadostasunen bat, bideragarriak diren eta ibilgailuetan aldaketaren bat egitea eska dezaketen neurri teknikoak ezartzeko epeak direla eta. Hau sinatzen duen ikuskatzailea bat dator alegazio horrekin, eta errekerimendu-proposamenean hasiera batean jasotako epea sei hilabetera luzatuko luke —errekeritutako administrazioak berariaz beste epe bat adierazi ezean.

Hirugarren alegazioa, azkenik, langileen ordezkariak ibilgailuen aukeraketan parte hartzeari buruzkoa da, eta aipatzen du ibilgailuak erosteko ezarritako oinarri teknikoetan jada kontuan hartu zirela langileek beste ibilgailu batzuk erabiltzean izandako esperientziak edo egindako ekarpenak. Alabaina, gogoeta horrek ez du ordeztzen prebentzioaren arloko delegatuek langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaiekeen laneko ekipamenduren bat hautatzeko prozesu berri orotan alde zuzenik kontsultatuak izateko duten eskubidea; esku artean dugun kasuan eskubide hori ez zen aintzat hartu, eta ezin da onartu hura bete denik Administrazioak esan duen moduan.

**HORI DELA ETA, HONAKO BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDU HAU EGITEN DA:**

Uztailaren 21eko 23/2015 Legeak (Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza Sistema antolatzen duena) 22.4 artikuluan ematen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta 31/1995 Legearen (lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa) 43. eta 45. artikuluetan eta uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuan (zeinak onartzen baitu Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak jarduteko administrazio-prozedura bereziari buruzko eta Estatuko Administrazio Orokorren eremuan laneko arriskuen

de la propuesta de requerimiento de la actuante, si bien sí se pone de manifiesto alguna discrepancia en cuanto a los plazos de implantación de aquellas medidas técnicas que resulten factibles y puedan requerir alguna modificación de los vehículos. Alegación con la que muestra su conformidad la Inspectora que suscribe, ampliando —en defecto de indicación expresa de otro plazo por la Administración requerida— a 6 meses el plazo inicialmente marcado en la propuesta de requerimiento.

Finalmente, la alegación tercera referida a la participación de la representación social en la elección de los vehículos alude a que las bases técnicas establecidas para la adquisición de los vehículos ya tuvieron en cuenta las experiencias o aportaciones previas de la parte social en la utilización de otros vehículos. Ahora bien, tal consideración no sufre el derecho que asiste a los Delegados de Prevención a ser consultados con carácter previo en cada nuevo proceso de elección de un equipo de trabajo que pueda tener consecuencias sobre la seguridad y salud de los trabajadores; derecho que fue omitido en el caso que nos ocupa, no pudiendo admitirse su cumplimentación en los términos pretendidos por la Administración.

**POR LO QUE SE REALIZA EL SIGUIENTE REQUERIMIENTO DEFINITIVO:**

En uso de las facultades otorgadas por el artículo 22.4 de la Ley 23/2015, de 21 de julio, Ordenadora del Sistema de Inspección de Trabajo y Seguridad Social y de acuerdo con lo previsto en los artículos 43 y 45 de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales, así como en el Real Decreto 707/2002, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento sobre el procedimiento administrativo especial de actuación de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y para la imposición de medidas correctoras de incumplimientos



ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

prebentzioaren arloko ez-betetzeak zuzentzeko neurriak ezartzeko Erregelamendua) ezarritakoarekin bat etorri, goian transkribatutako manuak aplikagarriak izanik, behean sinatzen duen Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileak BEHIN BETIKO ERREKERIMENDUA egiten dio EUSKO JAURLARITZARI (Segurtasun Saila), honako hau bete dezan:

- Egokiak eta bideragarriak diren prebentzio-neurri teknikoak edo antolaketa-neurriak hartu beharko ditu, bermatu ahal izateko langileek erabiltzen dituzten SEAT León ibilgailuek ez dutela haien segurtasun eta osasunaren kontrako arriskurik sortzen, 6 hilabeteko epean, aldaketa teknikoen beharra badago, eta berehala, antolaketa-neurrien kasuan.
- Aurrerantzean laneko ekipamenduak hautatzen dituenen, langileen legezko ordezkariak parte hartzeko eta kontsultatuak izateko dituzten eskubideak errespetatu beharko ditu.

#### GAUZATZEKO EPEA:

Adierazitakoak.

Derrigor betebeharreko **BEHIN-BETIKO ERREKERIMENDU** honen berri prebentzio-delegatuei ematen zaie, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 43.2 artikulua dioenaren arabera.

Hori guztia, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko (10eko BOE) 31/1995 Legeko 45. artikuluan eta uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuan, Estatuko Administrazio Orokorraren arloan laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau-

en materia de prevención de riesgos laborales en el ámbito de la Administración General del Estado, resultando de aplicación los preceptos arriba transcritos, la Inspectora de Trabajo y Seguridad Social que suscribe formula REQUERIMIENTO DEFINITIVO al GOBIERNO VASCO – EUSKO JAURLARITZA (Departamento de Seguridad) en orden al cumplimiento de lo siguiente:

- Deberá adoptar las medidas preventivas técnicas u organizativas que resulten procedentes y viables para garantizar que los vehículos SEAT León puestos a disposición de los trabajadores no supongan un riesgo para su seguridad y salud, en el plazo de 6 meses si resultasen necesarias modificaciones técnicas y con carácter inmediato en el caso de las medidas organizativas.
- En lo sucesivo, deberá respetar los derechos de participación y consulta de los representantes legales de los trabajadores en la elección de los equipos de trabajo.

#### PLAZO DE EJECUCIÓN:

Los indicados.

De este **REQUERIMIENTO DEFINITIVO** de obligado cumplimiento se informa a los Delegados de Prevención, en base a lo dispuesto en el artículo 43.2 de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Art. 45 de la Ley 31/1995 de 8 de noviembre de Prevención de Riesgos Laborales (BOE del 10) y Real Decreto 707/2002 de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento sobre el Procedimiento Administrativo Especial de

ZERBITZU AGINDU ZKIA. Nº ORDEN DE SERVICIO: **48/0002345/19**

hausteen aurkako neurri zuzentzaileak ezartzeko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Jardunerako Administrazio-Prozedura Bereziari buruzkoan, xedatutakoaren arabera (2002ko uztailaren 31ko BOE), betiere apirilaren 25eko 464/2003 Dekretuak ezarritakoari jarraiki (ekainaren 11ko BOE).

Erakunde Publikoa eta Langileen Ordezkariek ohartarazten dira, 707/2002 Dekretuko 5.5. artikuluan ezarritakoari jarraiki —berezko araudia egon ezean gainerako administrazio publikoetako pertsonal zibilari aplikatzekoa baita (uztailaren 19ko 707/2002 Errege Dekretuko bigarren Xedapen Gehigarria)— **BEHIN BETIKO ERREKERIMENDU**an ezarritako epea amaitu ondoren, aipatutako administrazio publikoko dagokion gobernu-organoari jakinaraziko zaiola, dagokion ondorioetarako, 2002/707 Errege Dekretuko 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritakoaren arabera.

Bilbo, 2019ko apirilaren 16a

actuación de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y para la Imposición de Medidas Correctoras de Incumplimientos en materia de Prevención de Riesgos Laborales en el ámbito de la Administración General del Estado (BOE de 31-7-2002), según redacción por el Real Decreto 464/2003 de 25 de abril. (BOE de 11 de Junio).

Se advierte al Organismo Público y a los Representantes del Personal que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5.5 del Real Decreto 707/2002 aplicable en defecto de normativa propia al personal civil del resto de las Administraciones Públicas (Disposición Adicional Segunda del RD 707/2002 de 19 de julio) transcurrido el plazo de cumplimiento establecido en el **REQUERIMIENTO DEFINITIVO**, se procederá a su comunicación al respectivo órgano de Gobierno de la citada Administración Pública a los efectos que procedan, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 6º y 7º del RD 707/2002.

Bilbao, 16 de abril de 2019

**LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEA**  
EL/LA INSPECTOR/A DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL



Izpta./Fdo.: ANA BELÉN CALVO HERRERA